



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2015EKO EKAINAREN 10EAN OSPATUTAKO EZ-OHIKO BILKURAREN AKTA

2015eko ekainaren 10ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK :

Jose M^a Aranzabe Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Onintza Gorostidi Murua

Bere ezin etorria azaltzen dute: Jose Ramon Hernandez Cristobal, Uxue Etxebeste Eizagirre eta Leire Otegi Elola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Aurreko bilkuretako akten onespena.
 - 2015eko maiatzaren 5eko Udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetza Ebazpenen berri ematea.

.../...

LEHENENGO PUNTOA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2015eko maiatzaren 5eko Udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARREN PUNTOA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

12/2015 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 6koa, A.B. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, hau da 1975-BHR ibilgailuari dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera, behin betiko baja emateagatik.

13/2015 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 20ekoa, M.D.B.. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, hau da 1899-HXH ibilgailuari dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera, behin betiko baja emateagatik.

14/2015 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 22koa, zerrendatutako fakturak onartu eta bere ordainketa egin dadin agintzea, ebazten duena.

15/2015 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 21ekoa, Alkizara etorriko diren haur saharaiuen mantenu gastuak bere gain hartzea, ebazten duena.

16/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 1ekoa, A.S. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena, hau da SS-9080-AK ibilgailuari dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera, behin betiko baja emateagatik.

17/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 2koa, F.I. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, ebazten duena.

18/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 2koa Beleburupe guraso elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, ebazten duena.

19/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 23koa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Kurtso bukaera festa dela eta bazkaria frontoian egiteko eta udal materiala erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

20/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 3koa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, San Juan sua herriko hilerriko aparkalekuan egiteko baimena ematea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

21/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 4koa, A.G. andreari Tolosaldeko Mankomunitateko kontuhartzailletza eramateagatik, Mankomunitateak udalari ordaindutako ordainsaria ematea, ebazten duena.

22/2015 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 9koa, Bateriaezintasun eta Jarduteko ezintasunei buruzko erregistroa eta Ondare ondasunei eta sozietateetan parte hartzeari buruzko erregistroa eratzea, ebazten duena.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.00etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso dut Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.